



La, la, la, la...

Fitxa honetan, -(e)LA menderagailuaren erabilera oker edo badaezpadako batzuk ditugu aztergai.





- Hain da handia, ez **dela** atetik sartzen.

-(e)LA menderagailuaren erabilera oker hau, aurreko EHULKUren aholku batean xehekiago jorratua dugu; hona konpobide batzuk:

- Hain da handia, **non** ez **baita** atetik sartzen.
- Hain da handia, **non** ez **den** atetik sartzen.
- Hain da handia, **ezen** ez **baita** atetik sartzen.
- Hain da handia, **ezen** ez **den** atetik sartzen.
- Ez da atetik **sartzen**, hain **da** handia.
- **Hain da** handia, ez da atetik sartzen.



- **Ez ibili irristailuekin, eroriko **zarela**!**


Zergatik ez duen ibili behar irristailuekin adierazten da hor; kausa dugu, beraz.

- Ez ibili irristailuekin, eroriko **zara eta**!
- Ez ibili irristailuekin, eroriko **baitzara**!





- Autobusa **datorrela!**



- **Badator** autobusa!



- Gure herrian badago etxe bat horma gorriak **dituela**.

Erlatibo-perpaua baliatu behar dugu horrelako esapideetan.



- Gure herrian badago etxe bat horma gorriak **dituena**.



- Irakurriko duzu Damasioren liburua?
-Noski irakurriko **dudala!**



- Irakurriko duzu Damasioren liburua?
 - Noski!
 - Bai, noski! (*Noski baietz!)
 - Bai, noski, irakurriko dut!
 - Irakurriko dut, noski!



— Irakurriko duzu Damasioren liburua?
-Noski irakurriko **dudala!**

Baina *horixe* edo *jakina* partikulak erabiliz gero,
ordea, zilegi dugu -(e)LA menderagailua
erabiltzea:

- Horixe irakurriko dudala!
- Horixe baietz!
- Jakina irakurriko dudala!
- Jakina baietz!



- Taula aztertuz gero, hala ere, ikus dezakegu **nola** 81 eta 82 zenbakiak agertzen **direla** eta, halaber, zenbaki batzuk errepikaturik **daudela**.

- ...ikus dezakegu **nola** 81 eta 82 zenbakiak agertzen **diren...**
- ...ikus dezakegu 81 eta 82 zenbakiak agertzen **direla...**

35	23	80	32	17	46	44	34
22	41	20	81	68	56	61	78
16	59	77	63	50	11	79	75
62	13	37	82	58	57	10	39
9	38	36	26	27	15	72	24
60	48	53	70	14	33	12	73
42	3	71	67	8	51	69	55
50	49	2	31	54	5	29	74
19	7	64	16	1	30	28	18
6	25	4	65	52	40	45	62



- Taula aztertuz gero, hala ere, ikus dezakegu **nola** 81 eta 82 zenbakiak agertzen **direla** eta, halaber, zenbaki batzuk errepikaturik **daudela**.

“Horrelako adibideak (*nola...-eN*) ez dira falta tradizioan. Horren lekuan inoiz entzun eta irakurtzen den *nola... -eLA* egiturak, ordea, ez dirudi aski den adinako onarpena duenik:

(166) ??Entzun dut **nola**, baserria erre zenean, herriko gazteek jaialdi handi bat antolatu **zutela** haren alde diru biltzeko.”

[Euskaltzaindia (1999), EGLU-V, 77. or.]



- **Nik uste, antzeko esparruan gabiltzala** gehienok.
- **Nik uste dut** antzeko esparruan gabiltzala gehienok.
- **Nire ustez,** antzeko esparruan gabiltza gehienok.
- Gehienok, **nik uste,** antzeko esparruan gabiltza.



- **Duela bost urte etorri zela.**

- **Duela** bost urte etorri **zen**.
- **Orain dela** bost urte etorri **zen**.
- **Orain** bost urte etorri **zen**.
- Bost urte **dira** etorri **zela**.
- **Badira** bost urte etorri **zela**.